


Zumaiako herri aldizkaria

1999ko uztaila

BALEIKE

200 pta.

59. zenb.



- Joseba Egañarekin eguraldiari buruz
- Enbil Bidasoan eta Alberdi zestako profesionaletan
- Bosgarren urteurrena Txougiroan

- **Rikardo Peña berriro alkate PSE-ren babesarekin**

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60


Urolthermik

Arotzia Metalikoa



Urolthermik
Oarpiateria metalikoa

POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue

Uxua Ostolaza

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre

Esther Aizpurua

Eneko Dorronsoro

Ane Osa

Joseba Ossa

J.L. Romatet

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre

Igor Uranga

Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub

taldea, Inurugiro tailer

eskola, Miriam Romatet,

Jon Manzisidor,

Fototeka,

Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Patxi Arias Vega

Argazkiak

Jonathan Bernal

Baleike

Disenua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza

(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia

(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erantzukizuna

Zumaiako udal hauteskundeetako emaitzak zeintzuk izan diren denok dakizkigu. Beste gauza batzuen artean, PP-k lortutako 231 botoek atentzioa eman didate. Idazten duen honek, beste alderdietako zerrendaburuei bezalaxe, Zumaiari buruzko galdera batzuk bidali zizkion alderdi horretako hautagaiari. Erantzuna alabaina, zehatza izatetik urruti, orokortasunez betetako manifestu bat izan zen, edozein herrirentzako balio duena: "el objetivo es acercar el proyecto popular a la mayor parte posible del pueblo guipuzcoano"; "nuestro partido pretende contribuir en la modernización y dinamización de la localidad"; "queremos trasladar al municipio los resultados que están consiguiendo en otras localidades y en el Gobierno". Era honetako adierazpenak zabaldu zituzten, herriko arazo zehatzei buruz ez zutelarik inolako iritzirik eman. Demokrazia batean, edonork edonori botoa emateko eskubidea du eta hori beti defendatuko dut, baina PP-k bere diskurtso horrekin frogatu du Zumaiatz ez dakiela gauza handiegirik edo ez du behintzat horrela azaldu; hala ere boto pila eskuratu ditu eta hau kezagarria da. Bati edo besteari bozkatu, botoa ez da opari bat, erantzukizun bat da, alderdi guztiena eta batez ere hautesleena.



Igor Uranga

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiko Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social





ANGEL ETXANIZ

Doinua: Mixiolari baten moduan

San Kristobalak

*San Ferminekin batera aurten
badoaz San Kristobalak
Narrondon jaiak izan ditugu
eta ez festa makalak.
Ardi txakurrak, idien demak,
zezenak eta moxalak
frontoi berrian lehendabizikoz
eskuz profesionalak
urtero zerbait antolatzeke
badira nahikoa lanak.*

*"Kamio"-teka egunez eta
taldeak iluntzerako
umeez duten jolas parkean
jolasak umeentzako
dantzari txiki, sardiña jana,
titiritero ta mago
hemen urtero nahi duenak
zer aukeratu badago
aurtengo jaiak bukatu dira
San Kristobalak akabo.*



MIKEL LIZASO

Garagardoari laudorioa

San Pedroetako zurrumbiloan harrapatu ninduen kolumna hau egiteko Kaxkajoren proposamenak. Gai interesgarriren bat pentsatzen hasi orduko, hara hor non bota zidan Pilarrek, bere barrerik gaiztoena eginaz eguneko bigarren erronka: "Ez al duzu ba eskuan duzun zerbezari buruz zerbaite lirikoa esateko kapazitatetarik izango?", esan zidan. Kaxkajok ondotik: "hau beti izan dun prosaiko samarra".

Eta nik ezetz diot, konturatzen hasia bainago garagardo trago bakoitza gure arbaso argien plazerrik gorentsuenaz gozatzeko gonbitea dela. Mesopotamian bizi izan ziren herritarren sekreturik baliotsuena deskubritzen dugu behin eta berririo eta Tigris eta Eufrates ibaien erriberako uztarik aberatsena izango balitz bezala edaten hasia nago ni garagardoa. Zurrutada hartu orduko nire ondoan ikusi dezaket Egíptoko zibilizazio zaharreko Gizeh-ko merkatu saltzaileraren bat bere azken zukua eskeintzen. Edariaren gustu garratza somatu eta gudari keltiarrek burrukara joan baino lehen sentitzen zuten zirra sentitzea ez da zaila Kilkeny, Caffreys edo Guinness baten aurrean. Orain ulertzen dut erdi aroko monjeek, parabolika erabili gabe, beren maitineetan kristorekin kontaktuan jartzeko erabili izan duten metodoa. Nola izango ziren ba Txekia aldean emakumeak horren politak, bertan sortzen den garagardo goxoari esker ez balitz?

Zin egiten dut ateratzen diguten garagardo hotzaren espuma artean kerubinak ikusi ditudala surf egiten eta burbuja artean noraezean dijoazten liliak baino lirainagoak ziren txori txikiak ere antzeman ditudala... batik bat goizaldeko hiruretatik aurrera. Baina, Zumaiaiko garagardo banatzailearen jitea ikusita, edari honen lirismoak aidean alde egiten du ihesika, tipo horrek erabiltzen duen kamiointzarraren keak eta zaratak bezalaxe. Edota ikusi al duzue ba sekula Gaxi-Riojaneiro esku artean San Miguel bat duela Neruda erreztatzen?



7 MARES

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES IZOTZUAK

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

BASADI

ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

1. arraildiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Alberdi

Gizonetzkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Kirol portua martxan da

Ekainaren 6an burutu zen inaugurazio ekitaldia

Azkenean Kirol Portuaren proiektua gauzatu da, errealitate bihurtu da. Ika-mika eta eztabaida ugari pasatu ostean funtzionamenduan dago jadanik. Ekainaren 6an burutu zen inaugurazio ekitaldia, baina honek ez du esanahi portua erabat bukatua dagoenik, oraindik proiektuaren hirugarren fasea egiteke baitago.

Momentu honetan Kirol Portuan ikus daitekeena, proiektuko lehenengo bi faseen lanen emaitza da. Hau da, atrakalekuen %40a, moilak, tailer teknikoa, eskoilerak, 250 metroko pasabide bat, kapitania eraikina, ontziak igotzeko sistema bat eta bestelako urbanizazio lan batzuk. Ontzi batzuk ere dagoeneko bertan ikus ditzakegu tratatuta.

Hau gauzatuta, hemendik aurrera hirugarren faseari ekingo zaio. Zerbitzu osagarrien zonaldea egingo da: atrakalekuen gainontzeko %60a eraikiko da, klub nautikoa eta halaber, 3.700 metroko azalera hartuko duten makina bat lokal komertzial (jate txekoak, dendak eta bestelakoak). Orain, 275 ontzirentzako lekua dago, baina lanak amaitzen direnean 512rentzako egongo da.

Kirol Portuko lehenengo lanak 1998ko urtarrilean hasi ziren eta ia urte eta erdi pasa behar izan dute inauguratu ahal izateko. Baina bere bidea hasi baino lehenago eta obrak aurrera zihoazela ere, gorabehera ugari izan da; momentu batean gainera, herri-tarren artean zatiketa nabarmena eta arriskutsua gertatu zen proiektuaren aldeko eta kontrako jarreraren artean.

Proiektuaren baitan izandako gertaera azpimarragarrienetarikoa labur-bilduko ditugu ondoren:

- 1994. urtean, Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro Sailak bultzatuta, Euskal Herriko Unibertsitateko talde batek kirol portuaren inguruko azterketa bat egin zuen, eta proiektuaren aurkako ondorioak atera zituzten.

- 1997ko martxoan, Zumaiako portuaren ordenazio plana plazaratu zen. Alegazio ugari jaso zituen, natura eta sozioekonomia ikuspuntutik batez ere. Une horretan Zumaia Bizirik eta Udalaren arteko tirabirak areagotu egin ziren kirol portuaren inguruan.

- Hilabete pare bat beranduago Kirol Portuaren proiektua ikusgai jarri zen eta uda horretan proiektu honen aurkako hainbat mobilizazio burutu ziren herrian.

- 2.000 milioi pezeta kostatutako barra berriaren proiektua legez kanpoko delat erabaki zuen Euskal Herriko Auzitegi Gorenak. Zumaia Bizirikek Alkatearen dimisioa eskatu zuen.

- 1998. urteko urtarrilean kirol portuko lehen lanak hasi ziren. Paduran dragatu beharreko hondakinekin gorabehera handiak. Material kutsagarriak dituela eta, hasiera batean pentsatuta



Eraikitze lanak, dragatzerako orduan bezala, arazoren bat baino gehiago eragin zuen argazkian ikus daitekeen bezala.

zegoen itsasgunera jaurtitzen ez zen utzi. Gipuzkoako Kofradiek ez zutela hori egiten utziko mehatxatu zuten, beren arrantza kaltetuko zuelakoan.

- 1998ko martxoan, Greenpeace Zumaiara etorri zen kirol portuko lanak gainbegiratzera, eta irregular-tasun batzuk zeudela aldarrikatu eta obrak geldiaraztea eskatu zuten. Dragatutako hondakinen kokalekuaren inguruan arazoez jarraitu zuten.

- 1999ko ekainaren 5ean inauguratu zen Kirol Portua.



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407



Itzurun, 1 Tel. 143224

Kirol Portuaren eraikuntzaren balorazioak. Bi ikuspuntu:

Rikardo Peña, Zumaiaiko Alkatea

Ikusteko dago aurrera begira zer-nolako emaitzak emango dituen Kirol Portuak. Bost urte behintzat pasatu beharko dira sortuko lituzkeen sinergiak ikusteko. Bat-batean, inauguratu ondoren konprobatu dena da, ez dela ontzientzako aparkaleku soilak, baizik eta jendearentzako ere erakargarritasun handia duela paseatzeko garaian ere. Zentzu honetan inork gutxik espero zuen horrelako erantzuna izatea.

Bestalde, hotel bat martxan, bestea egiten eta hirugarren bat kirol portuaren inguruan egiteko asmoa dago, oraindik asmo hutsa den arren. Gainera komertziantek ere oso interesatuta daude kirol portuko gune komertzialaren inguruan eta bertan kokatuko diren lokalen inguruan.

80 ontzi inguru daude dagoeneko kirol portuan eta hau benetan adierazgarria da. Herriarrek ere oso ondo hartu dute instalazio berri hau eta beren ontziak bertan dituzte; gainera itsasoa goian edo behean egon, itsasora inolako eragozpenik gabe irtetea ahalbidetzen die.

Zumaia Bizirik

Tristeena da Bizkaiko Golkoko leku hezeen artean balio ekologiko handienetakoa duen gune bat hondatu dela. Beste hausnarketa garrantzitsu bat prozesu honetan, etengabeko irregulartasunen inguruan egin behar da. Denborak eta epaitegiek frogatu dute barra lege kanpoko zela eta bertan egindako ondorengo edozein jarduera ere lege kanpo zegoela, EAJ eta Rikardo Peña hau bazekiten arren. Nahiz eta saiatu adierazten Kirol Portua berme legal guztien pean eraiki dela, beldur gara gure errekurtsioa erabakitzen denean beste lege kanpoko egoera batekin aurkitzea.

Zumaiar asko bezala, estafatuak sentitzen gara barrako lanak ez direlako eraginkorrak gertatu. Lan hauetan ez du ia herriko inork parte hartu eta enpresa kontzesionarioak baldintza eskaseko dozena erdi lanpostu besterik ez du eskaintzen. Kirol Porturik gabe, Zumaian langabezia ia 15 puntutan jaitsi da azken urteotan, eta guretzat, herriaren garapenerako egin beharreko apostua beste norabide batetik doa.

Bukatzeko, gure kezka agerrarazi nahi dugu Kirol Portuko dike berriaren inguruan. Herrian uholdeak izateko arriskua handitu dezake edo barrako bokaleko sakontasun urriak istripuren bat sorrarazi. Zerbait gertatuz gero, Zumaiaiko herriarrek zeintzuk izan diren errudunak gogoratzea nahiko genuke eta ordaintzea beren erantzukizun ezagatik.

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2 Tel. 861521

L PRACTICAS **AUTO-ESKOLA** **STOP**

ZUMAI A

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 861018

ad AUTOS ZUMAIA
Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

AXIER KIROLAK
Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06

OSKARBI KIROLAK
Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12



Inaugurazio ekitaldian hainbat agintari izan ziren, horien artean Alvaro Amann Sailburua eta Rikardo Peña Zumaiaiko Alkatea. Honek azaldu zuen bezala, "kirol portua ez da bakarrik onuragarria izango Zumaiarentzako, baita Urola Kosta bailara guztiarentzako ere".

Era honetako ekitaldietan egin ohi denez, eta orain dela gutxi udal igerilekuarekin gertatu bezala, protokolozko zinta mozketa eta ohiturazko aurreku dantza egin zen, eguraldiak gehiegi lagundu ez arren.



Orain dela gutxirarte Santixoko padurak honako itxura hau azaltzen zuen, baina hau atzean geratu da eta zati handi batean Kirol Portua dugu orain.

Greenpeace-ko kideak kirol portuaren lanak ikuskatzera etorri ziren, irregulartasun batzuk zeudela salatuz.



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

balezulo
importaturiko enropa eta artisautza



Basadi, 3



Rikardo Peña alkate hirugarrenez, PSEren babesarekin

Azkenean ez da posible izan alderdi abertzaleen arteko akordioa

Rikardo Peña EAJko zerrendaburua izango da Zumaiako alkate datozen lau urteotan. Hirugarren agintaldia izango du jarraian, hilaren 3an egindako plenoan PSEren babesa jaso ondoren. EAJk nahikoak zituen alderdi sozialistaren bi botoak gehiengo osoa lortzeko (5+2). EHk eta EAK euren zerrendaburuei eman zieten botoa, EAJrekin izandako negoziazioetan ez baitira akordio batera iritsi.

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak

GARRAIO ASTUNAK



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073

CORO
PRIETO
Esteticista

Tel. 861322

Bonifazio Etxegarai plazatxo z/g



Basadi Auzategia, 10 behe
Tel. 862051

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



Basadi Auzategia, 9-A 2-B

Euskal Herrian bizi dugun testuinguru politiko berriak Zumaiako Udalean nolako eragina izan zezakeen galdetu genien alderdi guztietako hautagaiei hauteskunderen aurretik. Guztiak itxaropentsu agertu ziren, baina inork ez zuen apustu zehatzik egin nahi, azken finean Udalaren gobernuak adostasun maila handia eskatzen duelako eguneroko politikan. Hauteskundeetako emaitzek azken hilabeteetako joerak bere horretan jarraitzen duela erakutsi digu: EHren gorakada nabarmena da, EAJk eutsi egiten dio nahiz eta zinegotzi bat galdu, EAK bi zinegotziak mantentzen ditu PSEk bezala, eta lehen aldiz PP aurkezten da (Aurreko hauteskundeetatik urruti gelditu eta ez dute zinegotzirik lortu). Ekainaren 13ko hauteskundeek honela utzi dute zinegotzi banaketa: EAJk 5, EHk 4, EAK 2, PSEk 2 (guztira 13).

Hortik aurrera, 20 eguneko epea zabaldu zen alderdiek euren artean negoziatzeko, uztailaren 3an udal gobernu berriarako akordioaren bat gauza zedin. Abertzaleen arteko akordioa nahi zuten zumaier gehienek, baina oraingoan ere ezinezkoa izan da. EAJk berriro PSEren babesa lortu zuen, eta horrekin nahikoa zuen Rikardo Peña berriro alkate izateko.

Uztailaren 3an osatu zen udal gobernu berria

Uztailaren 3an burutu zen udal gobernu berria hautatzeko plenoa, goizeko 11etan. Miren Etxezarreta Udaletxeko idazkariak prozeduraren xehetasunak gogorarazi, eta Zumaiako Udalaren diru kontuen berri eman zuen: 222 milioi ditu une honetan

kutxan, eta 1600 milioiko jabegoa. Atariko honen ondoren, ordu laurdena nahikoa izan zen ekitaldiari amaiera emateko, lehen bozketan EAJk gehiengo osoa lortu baitzuen. Alderdiak kideak alde batera utzita, apenas hurbildu zen herritarrik udal txera. Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzen zuen pankarta bertan izan zen, ordea. Beste udal batzuetan bizitako tentsio une eta istilurik ez zen izan gurean, eta zinegotzi guztiek zoriondu zuten Rikardo Peña. Azken honek, eskerrak emanez ekin zion bere hirugarren agintaldiko lehen diskurtsoari: "Eskerrak eman nahi dizkiot Zumaiako herriari hirugarren aldiz alkate izateko aukera eman didalako. Norbere herriko alkate izatea ohorea izaten da, eta hirugarrenez hautatua izateko aukera oso gutxi izaten dute. Esan nahi diet ez nagoela aspertuta, inoiz baino gogo gehiagorekin baizik". Rikardok bere alderdikideei ere eskerrak eman zizkien, emandako konfiantzagatik.

Oposizioan gelditu direnei, unean uneko akordioak egitera gonbidatu zituen: "Udal gobernu honek ahalik eta egonkortasun handiena bilatuko du, eta horretarako ez ditut baztertzeko oposizioan gelditu direnekin akordio puntualak egitea. Bestalde, zinegotzi guztioi eskatu nahi dizuet eztabaidetan errespetuz eta gizalegez jokatzeko".

Alkateak aurreko urteotan egindako lana ekarri zuen gogora: "1992an Zumaiako 2005 proiektua egin zen, eta orain fruituak ikusteko moduan gaude: hortxe ditugu kirol portua, industrialdeak, babes ofizialeko

etxebizitzak, eskola berria... Azken laupabost urteotan 11000 milioiko inbertsioa egin da Zumaiari eta ez da erraza izango hori berriro lortzea". Langabeziak behera nabarmen egin duela azpimarratu zuen: "1991n %21eko langabezi tasa genuen, eta gaur egun %5ean dago. Egoera ekonomikoak lagunduta, gure herrian langabeziari aurre egitea lortu dugu".

Udal gobernuak 30 eguneko epea du, uztailaren 3tik hasita, kargu ezberdinen banaketa egiteko.

◀ **GORKA ZABALETA**

Datozen lau urteotako zinegotzien zerrenda:

EAJ:

Rikardo Peña Kintela,
Montse Arana Perez,
Asier Esnal Albizu,
Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola
Jose Javier Yeregi Telleria.

EH:

Javier Alvarez Yeregi,
Arritokieta Manterola Ispizua,
Uxua Ostolaza Egaña
Gonzalo Torre Oleaga.

EA:

Arantza Gajate Telleria
Abel Yeregi Sasaiain.

PSE:

Felipe Gutierrez Servan
Enrique Rubio Mendez.

ekin
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador
Oficial

MoviStar

MoviLine

Erribera, 18
20750 Zumaiako (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

CANAL+

CANAL DIGITAL

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

Askizuko aterpetxea zabaldu dute

Etorkizunean ingurugiro eskola bat izango da eta Arazik kudeatuko du datozen bost urteotan

Getariako Udalarena bada ere, Askizuko aterpetxea Zumaiari begira dago. Leku ezin hobean kokatuta, hemendik aurrera ateak zabalik izango ditu bertan egun batzuk igaro nahi dituenarentzat. Arazik ingurugiro enpresak kudeatuko du datozen bost urteotan, eta euren asmoa da epe laburrera ingurugiro eskola bat sortzea bertan.

Askizuko elizaren aurrean dago aterpetxea. Azkenaldian bertako nekazalturismoko jabeak erabiltzen zuen, ohe gehiago eskaini ahal izateko, baina hemendik aurrera benetako aterpetxea izango da. Arazik Ingurugiro Zerbitzuak enpresaren ekimenez, Getariako Udalak etxe horri erabilera handiagoa ematea erabaki zuen. Etxea goitik behera txukundu dute, logelak




prestatu, sukalde dotorea egin, behar ziren altzariak eta tresnak erosi... Udara honetan aterpetxe soila izango da, baina datorren urterako beste funtzio garrantzitsu bat ere izango du: ingurugiro heziketarako zentrua izango da. Arazik enpresa arduratuko da aterpetxearen kudeaketaz, bost urteko kontratua sinatu ondoren. Araziko kide den Juanjo Aranburuk erakutsi digu aterpetxea: "Oraindik azken detaileak falta dira, baina jadanik erabiltzeko moduan dago. Udara honetan espero dugu jendea etortzea, nahiz eta agian apur bat berandu ibili garen. San Ferminen ondoren hasiko dira etortzen". Aterpetxeak 30 bat lagunentzako oheak ditu, eta nahi izanez gero sukaldea erabiltzeko aukera ematen du. "hiru aukera ematen ditugu: lo egitea bakarrik; lo egitea gehi gosaria; edota lo egitea eta sukaldea erabiltzeko eskubidea". Prezioak honako hauek dira: (26 urtera arte) lo egitea 1000 pezeta; lo egitea gehi gosaria 1200; lo egitea gehi

sukaldea 1500; (26 urtetik gora) lo egitea 1600; lo egitea gehi gosaria 1800; lo egitea gehi sukaldea 2100.

Ingurugiro heziketarako zentrua

Aterpetxeak laister beste funtzio garrantzitsu bat beteko du: ingurugiro heziketa. Juanjok azaltzen digu ez dutela hasieratik buru-belarri sartu nahi izan, proiektu hori ongi eta patxadaz landu nahi dutelako: "Pixkanaka joan nahi dugu. Orain udaran denbora bat hartuko dugu proiektu hau eta beste batzuk aztertzeko eta ingurugiro eskola antolatzen joango gara". Bertan landuko dituzten gaiak inguruneari loturikoak izango dira: txakolina, arrantza eta gure kostaldearen ezaugarri geologikoak, besteak beste.

◀ GORKA ZABALETA



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6

Tel. 861078

“Estacioko”?

Ez al da ba “Estazioko”? Ez zuten ba gure hizkuntzaren babesle diren Euskaltzaindiako atso eta agureek beste erabaki glorioso bat hartu eta “z” hizkia azaltzen den hitz guztietan “c” erabiltzea onartuko. Baina ez, “Estacioko” jartzearen errua seinale egilearena da. Behin eta berriz esan izan zaie ez dela “Estacioko”, “Estazioko” dela, baina hauek bereari eutsiz “Estacioko” dela, ez “Estazioko”. Seinalea aldatzerako agian “Estazioko” “Estacioko” bihurtzea erabakiko du Euskaltzaindiak, baina oraingoz “Estacioko” “Estazioko” da.

**Urtero nahi ditugu hauteskundeak!**

Ze urtero, sei hilabetero, egunero! Horrela Udalak herria eraikin eta azpiegitura berriz beteko liguke. Herriari bueltatxo bat ematea besterik ez da behar hauteskunde kanpaina honen inguruan egin diren lanetaz ohartzeko: Frontoi atzeko haur parkea, frontoi txikiko horma pintatu berria, Larretxoko barandilla lujosoa, Itsas-Gaineko aulkia, etab. Hau luxua, hau derrotxea! Esan bezala, urtero nahi ditugu hauteskundeak.

Presoen aldeko kontzentrazio ixila

Zumaiako Euska Presoak Euskal Herrira Batzordeak, presoen eskubideak errespetatuak izan daitezen, hilero kontzentrazio ixilak egingo ditu Amaia plazaan. Hau dela eta kontzentrazio hauetan parte hartzera gonbidatzen digute eta bide batez jakinarazi, uztailak 17, larunbata, arratsaldeko 8retan Amaia plazaan kontzentrazio ixila egingo dutela.

Zumaian ere San Ferminak

Aste honetan goiz partean herrian ibili den edozeinek pents dezake Zumaian ere San Ferminak ospatzen ditugula, hainbeste ume txuri gorri jantzita ikusi eta gero, baina ez, Udalekuetako jendea izan da, urtero bezala, kalera irten eta entzierro dotorea egiten dutenak. Zezen eta guzti!

**ERTZ** informatika

ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET




Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 943 14 33 95

Galdona

Mendara marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 861330

“Tenporek ez dute inolako oinarri zientifikorik, sineskeria hutsa dira”



Etxeko balkoian anemometroa dauka jarrita, haizearen indarra neurtzeko. Ume koxkor bat zenetik begiratzen du egunero leihoaren ahotik, egunak nolako eguraldia ekarri duen ikusteko. Matematika irakasle Maria ta Josen, Metereologia da bere bokazioa. Fisika ikasia da, baina zientziaren ikuspegi zurrunarekin nahikoa ez eta orain filoso-fiako karrerari ekiteko asmoa du.

■ Noiztik daukazu eguraldiaren goraheherak aztertzeke zaletasuna?

Txiki-txikitatik. Zortzi urte nituenetik esango nuke. Zazpigarren mailan nenbilenean banekien metereologia nahi nuela izan. Besteek sendagile edo futbolista erantzuten zutenean, nik metereologo. Oso garbi neukan. Datuak hartzen nituen egunero: tenperatura, euri kopurua,... Orri guzti horiek gordeta ditut oraindik.

■ Hortaz, karrera aukeratzeko ez zenuen inolako zalantzarik izan.

Behin Zumaiara Donostiako metereologia etorri zen, Usabiaga jauna, eta hari galdetu nion ia zer ikasi behar nuen lanbide horretan sartzeko. Berak esan zidan Fisika zela egokiena, eta hortxe sartu nintzen.

■ Baina fisikarekin ez omen da nahikoa, oposaketa batzuk gainditu behar omen dira.

Bai, hala da. Lehengo urtean izan zen azken deialdia, Madrilén. Bertara 82 lagun aurkeztu ginen. Hiru proba gainditu behar ziren eta ni azkene-raino iritsi nintzen. Zazpi lagun iritsi ginen eta lau aukeratu zituzten. Kanpoan gelditu nintzen zoritxarrez. Hurrengoan izan beharko du.

■ Azterketako lehen galdera: Zer da metereologia?

Zer eguraldi egingo duen aztertzen duen zientzia da.

■ Gorbeako artzaina ardien portaeran oinarritzen da iragarpenak egiteko; tenporak sinesmen batzuetan. Zertan oinarritzen da metereologia?

Matematikari oinarritzen da. Formula jakin batzutan.

■ Baina matematikak zehatzak dira, eta metereologia ez.

Meteorologiak erabiltzen dituen ekuazioek ez dute soluzio matematiko bat. Erroreak lekua du ekuazio horietan. Denbora asko sartzen baduzu, hanka sartzeko arrisku handiagoa duzu. Egun batetik besterako iragarpenak nahiko zehatzak dira. Hortik aurrera, gero eta ziurgabeagoa da.

■ Zerk du eragin handiena Euskal Herriko kliman?

Itsasoak eta lurrazal menditsuak. Mendikatea oso garrantzitsua da. Ipar mendebaleko haizea itsasotik dator, hezetasunez beteta, eta mendien kontra jotzen duenean hezetasun hori kondentsatu egin da eta hodeiak sortzen dira. Horrekin bakarrik euria ziurtaturik daukagu.

■ Batzuen ustez, gehiago asmatzen dute Gorbeako artzainak bere ardiekin eta Pello Zabalak bere tenporekin, telebistako igarleek euren Meteosat famatuarekin baino.

Nik uste dut abereek zerbait igartzen dutela. Sen berezia dutela ez nuke ukatuko. Baina tenporena sineskeria hutsa da. Urtean lau tenpora egoten dira. Hiru egun jakin hartzen dira eta horiek esango omen digute nolako eguraldia egingo duen hurrengo hiru hilabeteetan. Egun horietan gelditzen den haizea nagusi izango da. Hori ez da batere zientifikoa. Uda honetarako adibididez, honako iragarpena egin zuen Pello Zabalak: ekaina oso beroa, uztaila euritsua eta freskoa eta abuztua oso beroa berriro. Ekainean ia ez genuen hego haizerik izan eta uztailan oraingoz nahikoa eguraldi ona egiten ari da.

■ Zenbat eguneko iragarpena egin daiteke metereologian oinarrituta?

Gehienez 10-15 egunekoa, baina hanka sartzeko arrisku handiarekin. Laugarren egunetik aurrera ez da batere ziurra.

■ Adibidez, esan al daiteke asteburu honetan zein eguraldi egingo duen? (San Fermin egunean egindako elkarrizketa da)

Bai, esan daiteke. Mapetan ikusten da eguraldi ona egingo duela datozen bost egunotan. Ekialdeko haizea dago eta horrekin eguraldi ona egiten du hemen. Tenperatura nahiko altuak izango ditugu gainera.

3 Zein da Zumaian gehien jotzen duen haizea?

Erdi eta erdi esango nuke. Udaran iparraldekoa da nagusi eta neguan hegoaldekoa. Alderantziz balitz udaran egunero 40 gradutan geundeke, eta neguan izoztuta.

3 Gure zaharrei askotan entzuten diegu eguraldia aldatu egin dela lehendik gaur egunera. Lehen euri gehiago egiten zuela, elurra sarriago... Hori benetan horrela al da?

Oroimenarekin jokatzeko badugu hala dirudi, gauza asko ahaztu egiten dituzu. Askotan esaten dute "ez dut inoiz horrelakorik ikusi". Baina datuetara jotzen baduzu beti aurkitzen dituzu horren parekoak diren hiruzpalau. Klima beti doa aldatzen, bere kasa. Gaur egun gertatzen da gizakiaren eragina inoiz baino indartsuagoa dela. Askok hitz egiten da berotegi edo inberradero efektuaren eraginez.

3 Azalduko al diguzu zer den hori?

Lurretik zerurantz ateratzen den beroa berriro lurrera itzultzen da, karbono dioxidoak ez diolako ateratzen uzten. Horrek lurraren beroketa eragiten du. Dena den, oraindik ez dago frogatuta benetan lurra berotzen ari denik, dioxidoak eragin zuzena duenik, eta are gutxiago guzti honek izango lituzkeen ondorioak. Kliman faktore asko daude elkar erlazionatuta eta oso zaila da

bakoitzaren eragina frogatzea. Agian, dioxidoaren eragin kaltegarria baieztatzen dugunerako ez dugu atzera egiterik izango, eta horregatik ongi ikusten dut neurriak hartzea.


3 El Niño fenomenoaz asko hitz egiten da. Zer da zehazki?

Peru aldeko itsasoko ura gehiegi berotzen denean sortzen den fenomeno bat da. Temperatura 28-30 gradura arte igotzen da. Horrek eragin zuzena du airean, eta presio sistema guztiak aldatu egiten dira: euria egin behar lukeen lekuan lehortea egiten du, eta alderantziz. Hego-hemisferio osoan du eragina, eta bizpahiru urtetik behin gertatzen da.

3 Eta hain urrutira joan gabe, hemen ere badugu fenomeno bitxi bat: Galernak.

Kantauri itsasoko fenomeno bat da. Oraindik aztertzen ari dira, ez baitago oso garbi nola gertatzen den. Azken finean, haize aldaketa bortitza da. Agian egun osoan ez dago haize nagusirik eta bat-batean ipar mendebala sartzen da indar handiarekin. Horixe da galerna, haize aldaketa hori. Egunean bertan iragar daiteke, arriskua dagoela behintzat. Hezetasun handia badago, beroa... arrisku handiagoa dago. Gauza konplikatu bat da.

◀ GORKA ZABALETA



beroak, borobil erdiz jositako marraz irudikatuta. Fronte hotzak atzetik aurretik baino haize hotzagoa du; fronte beroak alderantziz, haize beroagoa du atzetik. Hor sortzen dira hodeiak: tenpreatura ezberdina duten aire masak elkartzen direnean, airea goraka joaten da eta hezetasuna kondentsatu.

Borraskek erlojuaren aurkako norabidean egiten dute bira; antizikloiek erlojuaren norabidean. Horixe da mapa hauetan ikusten dena. Interpretazio zehatzak egiteko zeruko goiko geruzetako mapak ere aztertu behar dira.

Telebistan ikusten ditugun mapak

Lurrazalean dagoen presioa ikusten da mapan. Marra batzuk agertzen dira: isobarak. Hauek presio berdina duten puntuak lotzen dituzte. 1013tik gora presio altua da, antizikloia; 1013tik behera presio baxua, borrasca. Horretaz gain, fronte batzuk ikusten dira: Hotzak, hirukiz jositako marraz irudikatuta;

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81



Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334



HELBIDE BERRIA!!

Basadi, 7 behea
Tel./Faxa: 943 14 34 53

zein duzu aurtengo udarak plana? norekin?



Telmo Del Pilar

Nere asmoa
Alpe Suizoetara
joatea da,
Zigor eta
Txaflarekin.



Rafa Perez

Izugarri
ondo pasa,
eta suerte
pixkatekin
lanan bat bilatu.



Migel Perez

San Ferminetan
egon naiz
eta berriro noa.
Gero hilabete daukat
Zumaian
deskansatzeko,
printzipioz behintzat hori
da idea.



Iñaki eta Rafa

Lana zio.
Bakaziorik ez
eta diru gutxi,
eta Zumaian gelditu
beharko
degu.



Juanpe

Lana
daukat,
baina libre dagoenean
deporte pixkat
egiteko aprobatxatuko
dugu,
palak, surfa...



Popeto

Olatuak,
garagardoa, bidorra...
lagunekin,
neskekin,
etsaiekin...



Migel Manterola

Huesca
aldera goaz
kuadrilakoak
"descenso de cañón"
egitera, ez det behin ere
egin eta
gogoa daukat.



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea

Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

Ez ditzagun gure hondartzak zabortegi bihur



Udara iristen den bakoitzean gure hondartzak eta itsasbazterrak inbaditzen ditugu, gure ogitarteko, egunkari, eta beste mila gauzekin. Gure asmoa itsasoa bortxatzea izango balitz bezala. Eta egia esan, ez gabiltza asmo horretatik oso urruti.

Zumaiako hondartzak garbiak mantendu behar ditugu, baina garbi mantendu ahal izateko egunero-egunero garbitzaile talde batek jardun behar izateak ez du meritu handirik, meritua garbitzaile horiek pasa gabe hondartza garbi mantentzean egongo litzatekeelako.

Zumaiarron ardura da urte osoan zehar gurea den hondartza, udatiarrei zaindu behar dutela azaltzea. Hau dela

eta udara honetan hondartzako jende zikina salatu egin behar dugu, denon kontra ari baitira, eta ez dezagun kupidarik izan.

Hainbeste Kostatzen al zaizu?

Gipuzkoako hondartzetan kanpaina bat burutu beharra ikusi du Foru Aldundiak, eta Arazi ingurugiro zerbitzuak enpresaren kooordinaziopean burutuko da. Kanpaina honetan Zumaiako "Kalakariak" antzerki taldeak hartuko du parte. Hondartza bertan antzezlan txiki bat aurkeztuko dute, hondartzako ohiturak umorez salatuz. Ekintza honetaz gain, kartel, triptiko, kamiseta eta urpeko garbi-
ketak prestatu dira. Baita zenbait joko

eta lehiaketa ere, hondartzetan burutzekoak.

Urpeko garbiketak bi izango dira. Bat jadanik egina dago, Getarian izan baitziren hilaren 4an. Bestea 18an egingo da Pasaian. Hondartzetako beste ekintzak bost hondartzatan egingo dira: Getaria, Orío (bi hauek eginda daude jadanik), Pasaia (18an), Hondarribia (25ean) eta Mutriku (abuztuaren 1ean).

Zumaian ez dira izango, baina horrek ez du esan nahi gure hondartzak txukun mantendu behar ez ditugunik. Itzurungo bandera urdina ez da aski. Norberak ere bandera urdina merezi duela erakutsi behar du.

◀ **ARAZI**

ETXANIZ
ARROZTEGIA

Narrondo, 4
Tel. 943 86 03 12

ateak

tarimak

neurrirako altzariak

eta abar

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



GIZARTEKINTZA zentru soziala
KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

V. BALEIKE

komiki lehiaketa

Baleike Zumaiko herri aldizkariaren bosgarren urteurrenaren aitzakiarekin, komiki lehiaketa honen beste edizio bat antolatu dugu. Bertan, komikigile guztiak parte hartzera gonbidatzeaz gain, bereziki zumaiaarrak tentatu nahi ditugu lan pixka bat egitera. Anima zaitezte parte hartzera!

1. Lehiaketan **14 urtetik gorakoek** har dezakete parte.
2. **Pertsonaiak jatorrizkoak** eta argitaratu gabeak izango dira. Gaia librea da, eta neurri eta orrialde-kopuruari dagokionez, A-4 neurriko 2 orrialde, edota A-3ko orrialde bakarrekoak izango dira lanak.
3. Marrazkiak **txuri-beltzean** eginak izango dira, eta edozein teknika erabili ahal izango da.
4. Lanak bakarka edota talde lanean egindakoak aurkeztu ahal izango dira. Hori bai, **euskarazko lanei bakarrik zuzendutako lehiaketa** da gurea.
5. Lanak 1999ko uztailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, helbide honetara bidali edota bertan utziz:
FORONDA KULTUR ETXEA 20750 ZUMAIA

Aurkezpena bi sobretan egingo da. Handian lana sartuko da, azalean "Zumaiko V. Baleike komiki lehiaketa" eta lanaren izenburua jarriko dira. Sobre txikiaren azalean lanaren izenburua jarri eta barruan datu pertsonalak sartu beharko dira: izen-abizenak, helbidea eta ahal bada telefono zenbakia ere bai. Ez lanean ez sobreetan ezingo da egilearen nortasuna adieraz lezakeen izenik jarri.

6. Epaimahaia gai honetan adituak diren zenbait kidek osatuko dute, eta abuztuaren erdi alderako emango dute aditzera beren erabakia.
7. Epaimahaikideen iritziz lanek gutxienezko kalitaterik ez balute, sariak eman gabe gera litezke . Bestalde originaltasuna eta beste zenbait alderdi kontuan hartuta, akzesit bat emateko aukera ez da baztertzten.
8. Honako sari hauek ezarri dira:

1. saria	50.000 pta.
2. saria	30.000 pta.
Zumaia onenarentzat	20.000 pta.
9. Saritutako lanak Baleikeren jabegopean geldituko dira, eta aldizkarian bertan nahiz bestela argitaratzeko eskubidea izango du. Saritu gabekoak ere argitaratu ahal izango ditu, egileekin hitz egin ondoren.
10. Saritu gabeko lanak Forondan egongo dira lehiakideen esku, epaia eman eta hilabeteko epean. Jasotzen ez diren lanak Baleikeren jabegopean geratuko dira.
11. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar, eta zalantzazko kasuak antolatzaileen iritzira argituko dira.



Erribera kalea Tel. 861523

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ



San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

MEREZI AL DU ALDIZKARI
MONTAN 200 psta ^{GASTATZEA} ~~200 psta~~?

EZ. ZORIONEZ B ORRIA
SORTU DA ETA GURE MELBURUA

PISKANAKA ALDIZKARI OSOA
OKUPATZEA DA. HONKE CA ORRI-
ALDE BAKOITZEAN ROB LOWEREN
POSTER BAT AZALDUKO DA.

ZEINI INPORTA ZAIO POLIKIROC-
DEGI BERRIA?? GURI EZ.

GORA EUSKADI
GORA ROB LOWE
ETA GORA B ORRIA.!!

ROB LOWE

Bosgarren urteurrena Txougiroan

Bosgarren urteurrena, bost urte pasa dira orain baino zertxobait gazteago ziren zenbait zumaier institutuko informatika gelan sartu eta Baleikeren 0 alea egin eta kaleratu zutenetik. Aldizkaria sortu aurretiko lehen aste edo hilabeteetaz izenpetzen duen honek ezin du gauza handirik esan, lehen zenbaki hori herriko buzoi denetan agertu ondoren sartu baitzen zoroetxe honetan. Hala ere nire buruari galderatxo bat egin nahi nioke: zer zekiten orain baino ile batzuk gehiago zituzten majadero haiek aldizkari bat egiteari buruz? Teorian ezer gutxi, eta praktikan oraindik gutxiago. Hala ere ezin ukatu lehen zenbaki haiek ez zeudela batere gaizki. Beraien enkantua zuten, gazte batentzat denetik zuen: sexualitatea (morbo, morbo!), antimilitarismoa, musika, etab. Hilabeteak pasatzen joan ziren heinean, Baleikeren proiektua finkatzen joan zen. Erreportaje landuagoak egiten ziren, elkarriketek mami gehiago zuten. Zumaierren artean harrera ezin hobea zuen aldizkariak; salmenta aldetik gorantz zihoan, gazte jendeak ez zuen hutsik egiten eta helduak konturatzen hasi ziren Baleike ez zela fornikazio, drogadikzio eta intsumisioaren euskarria soilik, bazuela zer esana. Hala ere, onartu behar da lantalde honek jendearen itxaropenei nahiko era aldrebasean erantzun ziela, ze



udako ale haiek ez zuten nondik heldurik!

Zorionak zuri, zorionak zuri...

Konturatu gabe, gure umeak bi urte bete zituen. Ez zuen pardelen beharrik eta hori dela eta festatxo bat ematea bururatu zitzaigun, Baleike-Txoua alegia. Guk, hogeituroko bat baino txuloago, Aita Mari zinea alokatzea erabaki genuen aldizkariari zorionak emateko. Antzerkia, zinea, musika, euskal kultura, etab. denetik batu genuen jaialdi honetan. Eta jendearen erantzuna zein izan zen? Izugarria. Aita Mariko goia eta behea leporaino beteak, jendea gustura, txaloka, algaraka. Eta haurraren gurasoak puztu-puztu eginda.

3 urte geroago...

Haurrak 5 urte bete ditu. Itxura aldaketa izan du, familiarteko batzuk ere alde egin dute, eta berriak agertu dira. Orain Baleikek itxura burokratiakoagoa du, dirua eta imajinazioa bide

desberdinetatik baitoaz. Gai batzuk desagertu dira eta orrialdeak betetzeko atal berriak asmatu behar izan ditugu. Gure irakurlegoa ere badirudi aldatu dela, apoltronatu egin dela, ze, ea esan iezadazue non diren zuen kexak, iritziak, gutunak? Gainera umetxoa gizondu zaigu eta jada ez dago konforme 20 duroko pagarekin, orain 200 pezeta eskatzen ditu. Beno bost urte bete dituela eta...

Zenbaki borobila dela eta, beste festatxo bat ospatzea bururatu zitzaigun. Aita Marik gogorapen politak ekartzen zituela eta bertara berriz! Jaialdia antolatzeke Inazio Tolosari deitu genion, ze zein aproposago festa hau prestatzeko gizaseme hau baino! Gainera lehen Txoua antolatzeke bere laguntza paregabea izan genuen. Hori dela eta berarengan konfiantza guztia uztea erabaki genuen. Antolaketaren lehen bilera baino lehen jadanik bagenekien ze egunetan izango zen festa, ekainaren 25ean, hori dela eta,

TSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2

Tel. 862373

ileapaindegia
I Z E T A
Urumea, 6 Tel. 862083

ITZURUN
KIROLAK

Amaiako plaza, 13 Tel. 860758

kiroletan esan ohi den bezala, erlojuaren aurka borroka egin behar. Lehen bileratik argi geratu zen garrantzitsuena jendea ez aspertzea zela, ez genuela Baleikeren "fan"-ak bi ordutan eserita eduki behar atomoaren egitura esplikatzen edo Kirol Portuaren efektu terapeutikoak goraiatzaren. Ez, erritmoa behar zuen, festa, alaitasuna. Argi geratu zen beste gauza bat orain hiru urteko Txou-arekin ezin izango zela hausketa bortitz bat egin, jaialdi hartan soka denak ikutu baitziren. Horren ondorioz, eta denbora faltagatik, "garbiketa" bat egitea erabaki zen: kanpora laburmetraia (nahiz eta "Pletorexia" mitikoak algara ugari sortu eta baita Lekeitioko Zinemaldian saritua izan ere), rock taldeak eta lehiaketa eta jendearen partehartzea. Hori bai, Txou-a modernizatzeko asmoa izan zen: muntaia multimedia bat; kazetaritza, bideoa eta informatika batuko lituzkeen satira bat, etab. Hala ere, asmoak asmo, modernizazioa pikutara joan zen denbora,

teknologia eta, zergatik ez esan, gogo faltagatik. Gora tradizioa! Zumaiako talde eta artistekin hitz egin, tratutan jarri eta ikuslegoa gustura uzteko preparazioak egiten hasi ziren. Eta noski, konturatu gabe, denbora amaitu zen, eta jaialdia, Txoua, gainean zegoen.

Ekainak 25, Txoua.

Aurreko eguneko arratsalde guztian ibili ziren antolatzaileak Aita Mari zineko argiak behar zen moduan jartzen. Eskenatoki atzeko teloa ederki dekoratu ondoren, jaialdian parte hartu behar zuten taldeak banan-banan igotzen hasi ziren gau berezi horretarako dena prest uzteko. Entsaioak, nerbioak, lagunuen aurrean bakoitzak duen abilitate eta talentua ahal duen hobekien espresatzeko gogo.

Ekainak 25, ostirala, gaueko 9.30ak, Aita Mari zinea, eskenatokia. Antzerki taldekoak, denak elegante-elegante, "verbena-de-galan" baleude bezala

beraien sketxa entsaiatzaren ari dira. Aurretik bi dantzari taula gainean saltoka ibili dira. Hasiera batean ez dut beraien aurpegia ezagutu, kareta batzuekin estalia baitzeukaten. "Ze arraroa, kareta eta guzti..."

Zineko atera hurreratu, eta, mmmm... jende gutxi takillan, gainera hurbilen zeudenak bihurri itxurako ume batzuk. Berriro barrura. Antzerki taldekoek, argazki kamera eta mikrofonoekin armatuta, eserlekuak hartu dituzte... hau gerra da. Orduantxe konturatu naiz kaleko atetik eserlekuetara doan bidea alfonbra gorri batez estalita dagoela. "Lo Que Faltaba"-n agertzeko gogo handirik ez dudanez kalera berriz. Takilla ireki da. Jendeak txartela hartu eta atera hurbiltzen hasi da. Bihurri itxurako haurrak filako lehen postuan jarri dira eta barruan daudenei iseka egiten hasi dira. Inazio batetik bestera bueltaka dabil, nerbioak jota dago gizarajoa. Ateak ireki dira, jendea sartzen hasi da, alfonbra kristo bat eginda utzi dute, eta barruan masakrea. Antzerki taldekoak beraien "txoua" armatzen hasi dira. Zein dira "kazetari" hauen flash eta mikrofonoen azpian erori direnak: Mar Flores, Lequio, Obregón, Abraham Olano, Abelin Linazisoro... Ez, ondoko etxean bizi den andrea da, txikiteoan ikusten dugun gizona, Txurreronean karameluak erosten dituen haur bihurria. Behingoz kamara baten aurrean daude, beraien bi segundoko fama aprobetxatuz.

Hasierako ordua konfunditu duten batzuk kenduta, jende guztia barruan dago. Hasieran uste genuena baino gutxiago, baina jakina da kultura gutxiengo batentzat dela. Eskena-



**Loredenda
JEMAR**

**LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK**

Erribera, 1

Tel. 860375



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A

Tel. 862081



**taberna
JUSTA**

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

BALEIKE

1999ko uztaila. 59. zenb.



tokian Erkibe Abesbatza azaldu da. Rafael Aizpuruaren gidaritzapean Axentxio Elustondo apaizak euskaratutako "Etorri, etorri" delako kantua (ez dakit benetan horrela izena duen, barkatu eragozpenak) abestu dute. Gogoratu behar da abesbatza honek Zumaiako I. Kantu Lehiaketa irabazi zuela, eta kantu hau izan zela garaipen horren arrazoietakoa bat. Hasiera polit honen ondoren Jon Maia bertsolari famatua agertu eta ikusleei ongi etorria eman ondoren, saioa aurkezteari ekiten dio. Jarraian Anonymous Dantza Taldea (edo halako izen estrafalario bat) taularatu da. Denok dakigu zein diren dantzariak baina kontuan hartuta ekintza erreibindikatibo bat dela (nolatan Zumaia dantza talderik gabe) zergatik traizionatu beraien anonimotasuna. Saio labur bat egin dute, pare bat minutu gehienez, laburregia agian.

Euskal tradizioetik, klasikotasunera Gu, Geu & Company klarinete taldearekin. Musika klasikoa asko ulertzen ez badut ere (baina musika ulertu behar al da?), benetan saio alaia, optimista, polita ematen dute. Eta jarraian bertsoak. Nolatan jaialdi bat bertsozik gabe. Euskal kulturaren atal horren ordezkari bezala Joxe Joakin Aizpurua eta Olalde agertu ziren. Erreportaje honen egilea bertsozalea ez denez, bi bertsolari hauen saioari buruz hobe aditu bati galdetzea. Nire eserlekura bueltatu nintzenean antzerki taldekoak kazetaritzaren parodia bat egiten ari ziren. "Errediola, hori da hori abilidadia makinaz idazteko. Nik nire ordenadorian bi hitz idazten ditut minutuko, eta hori hotza egiten ez duanian! Hainbat aldiz saritutako Imanol Azkuek idatzitako ipuin bat kontatzera taularatu zen Jon Alzibar. Ipuin honetan, tonu futurista batean,

gai katastrofista bat kontatu zen. Hala ere lasai, gu Baleiken gauden bitartean, ez da halakorik gertatuko eta. Beno hala uste dut! Amaitzeko perkusio, ahots eta dantza espektakulu batez gozatu genuen. Perkusioan hiru zumaia, Arantxa Santa-maria, Juan Luis Blanco eta Aitor Bayo, eta sabel dantza egiten ezagutzen ez dudak neska gazte bat. Esan behar nahiko saio hippia, trazedental, etnikoa, perkusiboa iruditu zitzaidalda. Agian Txouari amaiera emateko egokia izan zen, rockaren monopolioarekin amaitzeko antidotoa.

Amaitu da Txoua. Motxa batzuen ustez, polita edo dezepzionantea, iritzi ezberdinak aurki daitezke. Eta hobe, ze unanidadea dagoenean, zerbaitek huts egin duen seinale. Aita Maritik ateratzean hain jende gutxi joatearen arrazoiak ohartu naiz. Frontoian pilota partiduak daude eta Zarautzen San Pelaioak, eta noski, kirola eta alkohola dauden tokian kultura kaka zaharra egitera joaten da. Baleiketik bost urte bete ditu; 10. urteurrena biziko al dugu? Txou berri bat egingo al da? Hori Rappel-i galdetu behar.

◀ JUAN LUIS ROMATET



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatu

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 861853

Baleiketxou (1999-06-25)

Duela oso gutxi, zer esango dizuet ba, urte batzuk, bazen Euskal Herrian herri bat, bertan bizi ziren gizonezko eta emakumezkoak, herri aldizkari bat eta Aldizkari hori egiten zuten neska-mutil 'txikiak'.

Oso zoriontsu ziren guztiak elkarrekin. Egia esan, ezin zuten elkar gabe bizi: Aldizkaria herririk gabe ez zen ezer, edo herriak ezinbestekoak zituen herritarrek bizirik irauteko... . Gizonezko eta emakumezko haiek gogoz hartzen zuten parte Aldizkaria egiten, zintzo baino zintzoago: inkestei erantzunez, erreportajeak eginez, hau bezalako ipuin txoroak idatziz, harpidedunei aldizkaria buzoneatuz... Eta are gogotsuago irakurtzen zuten.

Ez zen giro izaten herritarren artean, Aldizkaria azaldu eta gutxira, albisteak gora eta albisteak behera: "Hi... halako azaltzen dek Aldizkarian", "Ez da egia izango!", edo "Irakurri al dek zer dioten halakok Paoleko argiak direla-eta?"; edo "Letu al den Agurretan Mikelek niretzat idatzitako oharra? (aaaaiiii, hasperena). Horrela jakin zuten, adibidez, herrian hiru pralegai zituztela; edo Izaki Unizelularra sortua zela; edo PPK udal hauteskundeetan zerrenda aurkeztuko zuela.

Aldizkaria hilero-hilero ateratzen zen, hutsik egin gabe, eta egutegian zenbaki txikiak iristen zirenean edo kontu korronteko diru kopuruak gora egiten zuenean, herritarrek bazekiten ez zela urruti aldizkaria jasotzeko eguna. Jendeak ezin zuen imajinatu ere egin aldizkaririk gabeko hilabete hasiera, euririk gabeko San Telmorik ez den bezala...

Baina behin batean, eta inork nola edota zergatik ez dakiela, gertatu zen herri hartan ezer berezirik ez zela pasatzen. Alegia, egun guztiak berdinak zirela, orduak eta asteak elkarren atzean kate mailak bezala errestatzen zirela, eta berdin zela astegun zein jaiegun, San Pedro edo Inauteri, ez zela aparteko ezer gertatzen. Herri hartan ez zen piszinarik inaguratzen; ez zen festarik ospatzen; edo

itxuraz ez zegoen inolako trafiko arazorik, edo txakurrek ez zuten kalean kakarik egiten. Laburbilduta, herri hartan ez zegoen pozteko edo tristetzeko arrazoirik.

Gertatu zen, orduan, herritarrek ez zutela inolako kezka edo nahi berezirik. Berdin zitzaizela euskera edo erdara, kultura edo muskulatura, kirola edo eskirola, politika edo poetika, ekologia edo podologia. Ez zitzaien ezer axola, lanean ez zirenean ari egun guztia etxezuloan sartuta ematen zuten, satorrak bezala, telebistari begira, eta hitz egiten zuten baina ez zioten elkarri ezer ere esaten. Arrainek bezala egiten zuten, ezpainak mugitu, elkarri sentimenduzkoak baino gehiago mesprezuzkoak ziruditen musuak emanez. Ez zuten lagunik, kuadrilarik, hurbileko seniderik, nongoak eta nolakoak ziren gogoraziko zien ezer ere ez. Ez zuten ezertaz eztabaibatzen edo galdetzen.

Gertatu zen, zoritxarreko garai hartan, herriarekin batera aldizkaria ere zimurtzen hasi zela eta gure neska-mutil 'txikiak' alferrik ibiltzen zirela plantxa hartu eta paper guztiak banan-banan lisatzen. Piloan utzi orduko Aldizkariak eskusoinuaren hauspoak balira bezala zabaltzen eta zimurtzen ziren berriz ere, barruan sekulako pena izan eta aieneka baleude bezala. Inork ez daki nola, baina koloreak galtzen hasi ziren, zarpailtzen, eta gero eta zailagoa zen argazkietan fundamentuzko ezer ikustea edo bereiztea. Baina egoera are gehiago okertu zen. Izan ere, ezer kontatzen ez zuten orrialde zuriak agertzen hasi ziren tartean. Aldizkariak gero eta koaderno itxura handiagoa zeukan, irakurri beharrean idazteko.

Gertatu zen, azkenik, neska-mutil 'txikiak' zahartu egin zirela egun batetik bestera, gogoa eta nahia hasieran epeldu eta gero hoztu egin zitzaizkiela, eta aldizkariaren zenbaki bakoitza egitea elefantearen haurdunaldia baino luze eta neketsuagoa egiten zitzaizela. Eta azkeneko ez zutela ezer idazten, azken finean zer kontaturik

ezer gutxi zutelako. Baina irakurtzeko apenas inor zegoelako ere bai.

Eta zer esango dizuet ba... Azkenean lehen herria zena porlanezko eta harri hutsezko eraikin piloa zen, argazki batean fosilizatutakoa; eta lehengo gizon eta emakume prestu haiek ergel eta tuntun koadrila inozoa ziren orain; eta lehen aldizkaria zena orain komuneko papera zen, edo bokadiloa biltzekoa, edo fregatu ondoren lur bustiaren gainean botatzekoa. Eta neska-mutil 'txiki' haiek elkarrekin biltzen ziren noizean behin eta aldizkaria egiten zein ondo pasatzen zuten gogoratzen zuten, antzezlan berbera behin eta berriz errepikatuz, hitzez hitz.

Aipatutako ipuineko herrian gauzak normal gertatzen jarraituz gero, baleike aldizkaria oraindik bizirik egotea. Ziur aski bai. Edo herritar haiek tontotu ez balira, baleike aldizkaria irakurtzea eta aldizkarian laguntzen jarraitzea; edo, zer esango dizuet, eguneroko bizitzako gauza txiki haiek normal gertatu izan balira eta herritarrek benetako herritar izaten jarraitu izan balute, baleike aldizkaria betiko kolore bizi eta ederrekin eta orrialde zuririk gabe irtetea. Baleike, bai, baleike...

Baleike inoiz gertatzea kontatu dizuedan moduko zerbait hemen, baina ez dut uste erraza izango denik. Ezta hurrik eman ere. Zeren eta hemen, Euskal Herrian bada Zumaia izeneko herri txiki bat, euskaraz eta euskaldun bizi nahi duena. Eta 1999ko ekainaren 25ean badira Aita Mari zinea leporaino betetzen duten zumaiar jatorrak. Eta badira neska-mutil 'txikiak', isil-isilik eta musutruk, izugarritzko lana egiten ari direnak. Eta bada Baleike izeneko herri aldizkaria, urteak joan eta urteak etorri, beti gazteturik eta inolako zimurrik gabe hilero-hilero kaleratzen zaiguna.

Zorionak Baleike eta eskerrik asko.

◀ IMANOL AZKUE



Kalarri

Erribera kalea, 16
Tel. 862517

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelatik eta plater konbinatuak



Kresala
— edergintza —

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- * Depilaketa (beroa, epela)
- * Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- * Aurpegia edertzeko sendabideak
- * Gorputza edertzeko sendabideak
- * Lurrindegia
- * Solarium-a



KUKUTZ
serigrafia

- *kamisetak
- *txiskeroak
- *paperezko poltsak, e.a.

baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69



Ibon Enbil:

“Ematen dizkidaten minutuak aprobe-txatzen saiatuko naiz”

Zumaiarrak eskubaloiko Ohorezko Mailan jokatu du datozen bi urteotan, Bidasoarekin

Zumaiako eskubaloiak beste fruitu bat eman

dio maila goreneko eskubaloari. Ibon Enbilek jokalaria onenekin lehiatzeko aukera izango du irailetik aurrera, bi urteko kontratua sinatu baitu Bidasoarekin. Ibonek denboraldi bikaina osatu du Zarautz Amenabar taldearekin, eta orain bere ametsa gauzatzeko aukera etorri zaio:

Ohorezko Mailan jokatzea.

Bidasoako zuzendaritzak datorren denboraldirako proiektu berria osatu du. Aurreko bi denboralditan pasatutako estuasunak ahaztu nahi ditu Javier Sesmaren klubak, eta horretarako hainbat fitxaketa egin dituzte. Atzeritiek ekarritako jokalariez gain, Bidasoak etxean ere bilatu du, eta bi jokalaria gazte fitxatu ditu: Unai Arrieta eta Ibon Enbil. Azken hau, zumaiarra.

Bidasoak lehen lerroan izan ditu aurtien gabezi handienak, eta hori sendotzeko fitxatu dute Ibon. 24 urte egingo ditu abuztuaren 3an, eta jadanik maila gorenean aritzeko prest dagoen jokalaria da. “Beti izan dut Ohorezko Mailan jokatzeko amets hori, eta Bidasoara itzulita bada, hobeto; orain ematen dizkidaten minutuei ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatuko naiz”, esan digu Ibonek. Izan ere, jubenila zela

Bidasoak Pulpotik fitxatu zuen, eta bi urte eman zituen bertan David Rodriguez, Barreto eta enparauekin. Orduko zuzendaritzak kontratu profesionala eskaini zion, baina ez onartzea erabaki zuen. Ibonek ikasketak amaitu nahi zituen: “Eskubaloitik bizitzea oso zaila da eta nik ingeniarietza egin nahi nuen”.

Bidaso utzita, Pulpura itzuli zen. Baina Arrasatera joan zen ikastera eta bertako taldean hasi zen jokatzeko. Gero, Arrateren deia jaso zuen eta Ohorezko B Mailan aritu zen urtebetez. Esperientzia gazi-gozoa izan zen, eta ez zuen zalantzarik izan Zarautz Amenabarren deia baiezkoa emateko. Zarautzen denboraldi bikaina osatu du, eta taldeak Ohorezko B Mailarako igoera lortu du. Ibonek eskerrak eman nahi dizkio Zarautz klubari: “nirekin oso ondo portatu dira, eta Bidasoak deitu

zidanean entrenatzaileak asko lagundu zidan negoziatzerakoan”. Eta Zarautzik berriro Irunera, berriro Bidasoara. Buelta luzea eman du lehen taldera iristeko, baina lortu du nahi zuena: karrera amaitu eta Ohorezko Mailan jokatzeko.

Gainera, Bidasoarena ez da jaso duen eskaintza bakarra. Galiziako Teucro eta Barakaldo atzetik izan ditu aspaldian. Galiziako taldeak interes handia erakutsi du, eta Ibon bertara joateko prest zegoen Bidasoaren deia jaso zuenean: “Bidaso pixka bat berandutuz gero, orain Galizian izango nintzateke. Zorionez garaiz deitu zuten eta ez nuen zalantzarik izan. Bidasoaren proiektu berria oso polita da, eta gainera etxean nago”.

◀ GORKA ZABALETA



AIZPURUA

LIBRERIA

kmk99
Oreretan
materiala salgai!

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569



kamisetak
mantalak
galtzerdiak
eta abar



Juan Belmonte, 6

Tel. 860415

Beste zestalari zumaiar bat profesiona- letan

Antxon Alberdik bere
anaia Luis Mariren
bidea jarraitu du

*Batek baino gehiagok
pentsatuko du dagoeneko
zesta puntako pilotari profe-
sionala izatea erraza dela.
Ikusirik gainera zenbat
zumaiar dauden profesiona-
letan itxuraz ez zaie
arrazoirik falta. Unai
Zinkunegi eta Iñaki Osa
Estatu Batuetan, Gontzon
Enbil eta Luis Mari Alberdi
Euskal Herrian eta orain
azken honen anaia gaztea
Antxon Alberdi ere hor daude
gorengo mailan.*



Antxon
Alberdik
profesionala
debutatu du.

Dena den, Antxonek adierazi duen bezala, "profesionala salto egitea oso zaila da eta hau Gotzonek eta Luis Marik baieztatu dezakete. Afizionaltuetan, emaitza paregabeak lortzen zituzten baina hala ere ez zieten eskaintzarik luzatzen gora pasatzeko nahiz eta azkenean, kostata, profesio-
naletara igaro".

Antxon Alberdik 21 urte ditu eta ekaina hasieran debutatu du profesio-
naletan Eusko Basque enpresarekin eta hasiera batean behintzat urte eta erdirako kontratuarekin. Atzelaria da eta kantxan bere bertuterik onenak segurtasuna eta errebeseko kolpeak dira. Txikitandik gustatu izan zaio zesta punta. "Hamar urterekin hasi nintzen jokatzeko, orduantxe sortu zen Zumaian zesta punta eskola Muger-
zaren eskutik".

Hasiera batean ez du inolako helbu-
rurik jarri nahi, lehenbaitlehen profe-
sionala eritmorra moldatzea

bakarrak. "Gerora, onenekin jokatzeko da nere asmoa, baina horretara iristeko oraindik ibilbide luzea eta gogorra daukat".

Unai Zinkunegi eta Iñaki Osa Ameri-
ketan ari dira jokatzeko. Aipatu gainera, azken hau Munduko Txapelketa jokatzeko izan dela egunotan Euskal Herrian. Antxonek ez dio uko egiten Ameriketako bide horri, "baina momentuz behintzat Euskal Herrian arituko naiz nire ikasketak amaitu artean behintzat". Garai batean Ameriketara jotzea zesta jokatzeko oso irtenbide ona zen, diru asko mugitzen baitzen, "orain ordea ondo bizitzeko adina ematen dizu, baina ez lehen bezain-
beste, ezta gutxiagorik ere".

Antxonek beraz, Alberditarren saga edo dinastiari jarraipena eman dio. Gogoratu, Luis Mari bere aita, buruz buruko Munduko Txapeldun izan zela esku pilotan 1974. urtean eta Luis Mari bere anaia ere zesta puntako profesionala dela gaur egun.

◀ IGOR URANGA



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422



BALEIKE

1999ko uztaila. 59. zenb.



Tel. 143278

KÉRASTASE
PARIS

Maite
ileapaindegia

Arratibel-Irureta eta Gabarain ahizpak irabazle San Pedro pala txapelketetan

San Pedrinen berriz, Alkorta-Urbieta bikoteak lortu du garaipena

Arratibel-Irureta eta Gabarain Ahizpak San Pedro sarian eta Alkorta-Urbieta San Pedrinen dira aurtengo Pala Txapelketako irabazleak. Ekainaren 25ean jokatu ziren finalak eta ez zen ezustekorik egon.

San Pedrineko finalean, Unanue-Unanue bikoteak, iazko txapelketa honetako irabazleak, Alkorta-Urbietari egin zion aurre. Neurketak ez zuen historia gehiegi izan bigarren bikoteak partidu guztian zehar bere nagusitasuna erakutsi baitzuen eta beraientzako izan zen garaipena. Alkortak eta Urbietak osatutako bikotea aurreko urteetan San Pedroko fasean aritu da baina aurtengoan sailkatzerik lortu ez eta azkenean San Pedrinen txapeldun suertatu dira.

Emakumezkoetan, azken bi urtetako finala errepikatu da. Aizarnazabaleko Gabarain ahizpak Ana Egaña eta Marijo Aizpuruaren aurka aritu ziren eta iaz bezala, etxekoak galdu egin zuten. Olatz Gabarain atzelariak joko bikaina erakutsiaz, neurketa bere alde jarri eta uste baino errazago irabazi zuten.



Bukatzeko, gizonezkoen San Pedro faseko finala jokatu zen eta bertan, alde batetik Gorostola-Elustondo bikotea eta bestetik Arratibel-Irureta izan ziren. Azken hau aurreko urteko garailea zen eta bera genuen orain ere faborito; ez zuen hutsik egin gainera.

Joseba Arratibel aurrelariaren pilota-kadek Elustondoren erresistentzia gainditu zuten partidu hasieran, baina Jokin Gorostolak atzealdean bere

lekua hartu ondoren, norgehiagoka apur bat orekatu zen. Ordurako ordea, txapeldunek abantaila ona hartuta zeukaten. Jokin Gorostolak norgehiagoka bikaina burutu zuen, baita bere arerioek ere, ordea. Txapelak azkenean, Arratibel-Irureta bikotearentzako izan ziren. Azken emaitza, 30-26. Jokalari onenen sariak Olatz Gabarain eta Joseba Arratibelek jaso zuten bigarren urtez jarraian.

Honako hau izan da txapelketa ezberdinetako lehenengo lau postuen sailkapena:

San Pedro (gizonezkoak)

- 1- Arratibel - Irureta
- 2- Gorostola - Elustondo
- 3- Ostolaza anaiak
- 4- Arratibel - Etxabe

San Pedro (emakumezkoak)

- 1- Gabarain ahizpak
- 2- Egaña - Aizpurua
- 3- Ezeiza - Loiola
- 4- Salegi ahizpak

San Pedrin

- 1- Alkorta - Urbieta
- 2- Unanue - Unanue
- 3- Zendoia - Azkune
- 4- Arratibel - Segurola

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

RPS: 034/97

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

ILE APAINDEGIA

herea
Uranga

Etkezarreta, 19 Tel. 862342

uztaila

KARMENGO AMABIRJINAREN PROZESIOA

eta itsasoko uren bedeinkapena, Udal Musika Bandaren laguntzarekin.

► Uztailak 16, ostirala

KITARRA KONTZERTUA

Juan Andres Unanueren emanaldia.

► Uztailak 16, ostirala, gaueko 23:00etan
Oxford aretoan

UDAL MUSIKA BANDAREN UDAKO KONTZERTUA

► Uztailak 24, larunbata, gaueko 23:00etan
Eusebio Gurrutxaga plazan

TIRRI-TARRA

Tirri-Tarra fanfarrearen "Kass & Kass"

► Uztailak 31, larunbata, gaueko 23:00etan
Odieta pilotalekuan

abuztua

ZUMAIKO NAZIOARTEKO MUSIKA JAIALDIA

Ikastaro eta kontzertuak

► Abuztuaren 1etik 11ra

BERBENA BEREZIA

D'Camara orkestarekin

► Abuztuak 7, larunbata, 24:00etan hasita
Eusebio Gurrutxaga plazan

EUSKAL JAIK

Goiz-soinua eta kalejira, bazkari herrikoia, sagardo dastaketa eta erromeria Laja eta Landakanda trikitalariekin

► Abuztuak 12, osteguna

LOON TALDE IRLANDARRAREN KONTZERTUA

► Abuztuak 14, larunbata
Eusebio Gurrutxaga plazan

HAUR JAIALDIA

Hankagorri taldearekin:
"Mukikrossa"

► Abuztuak 15, igandea, arratsaldeko 18:30etan

Eusebio Gurrutxaga plazan eta Erribera kalean

JOXE RIPIAU TALDEAREN KONTZERTUA

► Abuztuak 21, larunbata
Eusebio Gurrutxaga plazan

OIKIA AUZOKO JAIK

► Abuztuaren 26tik 29ra

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

LIBURUTEGIA

Kultur etxean udako ordutegia jarri da martxan

Helduentzat

► Astegunetan, Goizeko 10etatik 14etara. Arratsaldetan itxita
Larunbatetan itxita

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, 10.00etatik 13.00etara

INTERNET

Liburutegian.

► Astegunetan, 10.00 - 13.00

ZALLA
Taberna - Erreategia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 862387

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



ZURICH
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169



GILANO
LIBURUDENDA
Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe, 7
Tel. 143191

Nikol Enea
TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

XV. Nazioarteko Musika Jaialdia: kontzertuak.

Orain pare bat hilbetetako alean, XV. emanaldia betetzen duen jaialdi honen xehetasunak eman genituen. Hala ere entzun eta ikusteko aukera izango ditugun kontzertuen behin-betiko datak oraindik airean geratu ziren. Datozen lerroetan kontzertu hoiek non eta noiz izango diren aipatzen dizuegu. Goza ezazuela!



• Abuztuak 1. igandea.

22.30etan Maria eta Jose antzokian, Kepa Junkera.

• Abuztuak 2. astelehena.

22.30etan Maria eta Jose antzokian, Irakasleen Kontzertua.

• Abuztuak 3. asteartea.

22.30etan San Pedro Elizan, San Pedro Abesbatza.

• Abuztuak 4. asteazkena.

22.30etan Goiko aurreko plazoletan, Kafe Musikala.

• Abuztuak 5. osteguna.

12.00etan Maria eta Jose antzokian, Kontzertu Pedagogikoa.

• Abuztuak 6. ostirala.

20.00etan Maria eta Jose antzokian, Irakasle eta Irakasleen Kontzertua.

• Abuztuak 8. igandea.

22.30etan Maria eta Jose antzokian, Ganbera Musika laborategia.

• Abuztuak 9. astelehena.

22.30etan Aita Mariko terrazan, Kafe Musikala.

• Abuztuak 10. asteartea.

22.30etan Maria eta Jose antzokian, Ganbara Musika lehiaketa.

• Abuztuak 11. asteazkena.

20.00etan San Pedro Elizan, "Porque Trobar" Antzinako Musika taldea.

22.30etan Itzurun hondartzan, "Luar Na Lubre" folk taldea.

• Abuztuak 12. osteguna.

22.30etan San Pedro Elizan, Jaialdiko Orkestra. Zuzendaria: Manel Valdivielso.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

Argazki lehiaketak badu irabazlea

Jesus Alonso Arranz, "Bodegón" izeneko argazkiarekin, izan da Zumaia XI. argazki lehiaketaren irabazlea. Argazkilari honek 50.000 pezetako diru saria jasoko du argazki honegatik. Lehiaketa honetan ematen ziren beste bi sariak Andres Indurain Gutierrez eta J.L. Irigoien-entzat joan dira. Lehenak "Sin título" argazkiagatik 40.000 pezetako diru saria jasoko ditu eta bigarrenak 30.000 pezetako diru saria jasoko dute. Guztira 43 argazki aurkeztu dira lehiaketa honetan, eta horietatik 30 onenak uztailaren 9tik 23ra bitartean Forondan izango den erakusketa ikusgai izango dira. Aipatu behar da baita ere zumaia-errei zuzendua zegoen diapositiben lehiaketaren irabazlea Javier Carballo ezaguna izan dela.

Lehiaketa honen gaia "Zumaia hondartzak" zen, eta irabazleak 15.000 pezetako diru saria jaso du. Alboan duzue Jesus Alonso-ren argazki irabazlea.



Zumaia 99 arte jardunaldiak

Uda honetarako Zumaia Arte Taldeak ondoren azaltzen ditugun erakusketak antolatu ditu. Artelan hauek Oxford-eko erakusketa aretoan izango dira ikusgai.

- Uztailaren 17tik abuztuaren lehen egunetara: Euskal Herriko grabatzaile famatuek osaturiko "Beste euskarriak, beste formatoak" erakusketa.
- Abuztuaren 6tik 22ra: Barbara Stammel-en erakusketa.
- Abuztuaren 25etik irailaren 12ra: Bertil Lagerström-en margoak.
- Irailaren 17tik urriaren 3ra: Daniel Carballo-ren lanak.

Urtero ohi den bezala, "Hurrengo Taberna Arte" erakusketa ere ikusgai izango da. Jakina denez, erakusketa hau Zumaia-ko artisten lanez osatua izaten da eta herriko tabernetan egongo dira ikusgai.



"Kosta" txartela kalean dago.

Uztaila hasieratik edozein turismo bulegotan eros daiteke "Kosta" txartela. 200 pezetako eskas balio dituen txartel hau aurkeztearekin batera, uztaila eta abuztuaren zehar inguruko herrietako museoak bisitatzeko %20-ko beherapena egingo dizue; eta herri bakoitzak antolatzen dituen ibilbide eta txangoetan parte hartu nahi baduzu %10eko beherapena izango duzu. Aipatutako beherapenak lortzeko, museoan sarreran edo ibilbideak hasten diren puntuan, "Kosta" txartela aurkeztu beharko da. Besteak beste, txartel honekin Getariako Balenciaga museoan, Zarauako Photomuseum-ean eta Zumaia-ko hiru museoetan izango duzu beherapena. Aurretik, esan den bezala, txartel hau Turismo bulegoetan izango duzu erosgai, eta honekin batera gida txiki bat emango dizute.

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

BELARDENDA SIWA
Izaga Garcia
DIETISTA
Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA
Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

INMOBILIARIA

TALAI

BIDAIK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

BALEIKE

1999ko uztaila. 59. zenb.



Udako kontzertuak

Udako zenbaki honetan gure herrian entzun eta ikusteko izango ditugun kontzertu batzuk aipatu nahi nituzke. Beti kexatu ohi gara Zumaian musika ona entzuteko aukerak nahiko urriak direla. Oraingo honetan behintzat hobe dugu ahoa itxi eta belarriak ireki, urteak dira-eta hain kontzertu on eta ezberdinez gozatzeko aukera izan ez dugula.

Musika denboraldia ekainaren amaieran hasi zen Los Perez de Nochistlan marietxekin, eta uztailaren hasieran jarraitu zuen Kubako Visión orkestarekin. Lehen taldeaz ezin gauza handirik esan. Musika estilo hori gustatu hala ez gustatu, aitortu behar da egiten dutena oso ondo egiten dutela. Bigarren taldeak, aldiz, kubatarra izan beharrean, Miamiko antikastristek bidalitako komando

terrorista baten antza gehiago zuen; ez dakit beraien asmoa zein zen, jaiak alaitzea hala hemen Kubak duen izen ona pikutara bidaltzea, ze Ricky Martin-en "un, dos, tres, hale, hale, hale..." delako hori jotzeak badu bere mamia!

Ikusteko aukera izango ditugun bi kontzertuak abuztuan izango dira eta Nazioarteko Musika Jaialdiaren barruan sartzen dira. Aurreko orrialdeetan aipatua dira, baina duten

garrantzia eta tiroi popularra dela eta, hemen gomendatzea egoki iruditu zait. Lehen kontzertua Kepa Junkera ezagunarena da. Trikitilari bizkaitar honetaz gauza asko esan daitezke, trikitixa eta "world music" delakoa elkartzen pionero bat dela, European zehar arrakastaz betetako kontzertu ugari eman dituela, Euskal Herri mailan egin den disko anbizioarenaren sortzailea dela, "Bilbao 00:00 h" konpakto bikoitzarena alajaina, etab. Musika etnikoarekin jarraituz, Itzurungo hondartzan Luar Na Lubre talde galiziarren musikarekin gozatzeko aukera izango dugu. Hauek folk tradizionala jotzen dute eta gure lurretan nahiko ezagun egin dira Mike Oldfield-en kontzertu donostiarrean teloneroak izan baitziren.

Abuztuko kontzertu internazionala Loon talde irlandarrak emango du. Hilaren erdi aldera izango dugu Dublin-en sortutako laukote hau beraien rock psikodelikoa gure artean zabaltzen. Abentura amerikarra egin

ondoren, gabonetan Irlandara bueltatu ziren eta orain Europa mailako bira bat egiteari ekin diote besopean beraien lehen konpaktoa, "Gaia" delakoa, dutelarik. Nahiko arraroa izaten da halako talde batek Zumaian eskala bat egiteak, hori dela eta, ez iezaiozue bizkarra eman beraien musikak merezi du-eta.

Musika popularrago batetara bueltatuz, Joxe Ripiau talde euskalduna aurki dezakegu. Muguruza anaiek osatutako talde hau izango da ziur aski Euskal Herri mailan kontzertu gehien emango dituen taldeetariko bat, hauen formula tropikala uda gauetan herri enparantzak betetzeko ezin aproposagoa baita. Data jarri gabe badago ere, abuztuan beste euskal talde baten musika entzuteko aukera izango dugu. Kontzertu hau arte jardunaldien barruan egingo da eta Azkoitiko Akauzazte talde arraro-banguardista-ikonoklasta-artistikoak emango du. Talde honi buruz zerbait esatekotan musika arraro samarra egiten dutela esan behar.

Portzierto, zerbait benetan espektakularra entzun eta ikusi nahi baduzue "verbena-de-gala" delakoan joko duten D'Camara orkestra ez ezazue galdu, ikusi ditugun promoziozko argazkiek egia esaten badute behintzat, talde honek emango duen saioa artistiko-musiko-gimnasta benetan ahaztezina izango baita. Orain bastonzitoak hartu, belarrietako argizaria kendu eta gozatu, musika aukera ezin hobe baizitu.

◀ **JUAN LUIS ROMATET**

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantiak eta bidaariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416



TALAI-MENDI DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ENKARGUAK: Juan Belmonte, 35
Tel. 929-550574



Gazte kuadrila hau salinõ dantza egiten ari da, oilasko biltze egunean. Txistularia Gillermo Aizpurua da "Txori txiki" famatua. Argazkia 1948koa da.

TXAPARTEGI GOZOTEGIAK emandako azken tarta **Maddi Zarautzentzat** izan da. Berak asmatu zuen bezala, hondartzan zegoen mutikoxkor buruhandia Kepa Junkera zen.

Lehiaketa goxoa

Adi, adi! ea tarta goxoa
nork eramaten duen!!!



Nongo pilotalekuan ari dira dantzaz gazte hauek?

Asmatzen duzuenon artean *Txapartegi* gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure hirugarren buzoi berrian edota Txapartegin bertan uztea, abuztuaren 27a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta

tipi
haur
oinetakoak

BALTASAR ETXABE Z/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kaler, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kaler, 33 C 3º 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kroi zelaien mantenimendua
Txostenak...
aholkularitza teknikoa,
Batorazioak



zein: Dania Legsin

zer: Giria

Nola: Ahal zan bezala, guk ere badakigula inglesezt, eh!

Nongoa zara?

Holandarra naiz, Rotterdam ondoko herrixka batekoa.

Aldea handia nabaritu al dezu handik hona?

Ez da Euskal Herrira natorren lehen aldia, banekien zer topatuko nuen. Hau zoragarria da, irekiak zarete oso, ala agian edanak ireitzen zaituzte?

Ba al zenuen Zumaiaren berri?

Ez nuen ezagutzen, eta egia esan, autoa hondatu ez balitzaigu, ezagutu gabe jarraituko nukeen. Eskerrak kotxe zaharrari. Herri polita daukazue

A San Fermin venimos...

Nola asmatu duzu? Beno, kanpotarrak, uztail hasieran, lo gutxi eginaren aurpegiarekin, blusa txuriz, eta zapi gorriarekin, logikoa ezta?

Zer moduz joan dira aurtengoak?

Magikoak dira. Nik uste ez dela posible Iruñara joanda gaizki pasatzerik.

Eta urrengo urterarte ze plan?

Oraingo behintzat hiru bat egun emango ditugu Zumaia inguruak bisitatzen, eta gero ikusiko da. Abuzturarte ez dut presarik.

Zer egiten du zu bezalako neska gazte batek presarik gabe, eta bakarrik?

Presarik gabe gozatu, lasai, inongo kezkarik gabe. Eta bakarrik zu noiz joango zain egon, ea lagunak itzultzen diren. Izan ere zure kamara eta trasteak hartuta etorri zaren moduan biak beldurtu dituzu.

Zer egiten dute hiru neska gaztek Zumaian bakarrik?

Bakarrik dauden hiru mutil gazte bilatu. Arratsaldean hondartzan izan gara, eta non aukeratua badagoela iruditu zaigu. Zu zeu ere ez zaude batere gaizki. (ez diot oso ondo ulertu, baina seguru hori esan nahi zuela)

agurrak

Kas naranja edo Kas limon?

Ez! Kaserua.

Illo, illo, illo...
emendator Zirolillo

Beitiabeitiabeitia
AGIRREÑABEITIA

Sucarentzat:

Iep! noizko deu LANDetarA eta Dublineko (Alemania) bidaia?

Debalde izanda kontuz abioiaren silloi bakarrarekin. Jertsea eraman beharrik ez duzu, han berotuko da eta.

"Zure konpiyak"

xirula

Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

TXOKO ABERNA

Artadi auzoa
Tel. 862189

Ur-gintza

SANEAMENDUA - KALEFAKIZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g Tel. 148082
20740 IRAETA - ZESTOA Faxa: 148124
78 postakutxa

AROZTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

DISEINUA
+ ZERBITZUA
+ KALITATEA

Amertxe
Foto

25. URTEURRENA

Markogintza
Erreportajeak
Estudio argazkiak
Errebelatuak
Kamarak et abar
profesionalak gara
etor zaitez!

ERRIBERA KALEA, 6
TEL. 943 86 17 07
ZUMAIA



Itzurun Zuhaitz bidea, 1
Tel: 943 86 24 30/ 86 03 15
ZUMAIA

agustin
HARAKINA

Bertako haragia eta geuk egindako txarkuteria

Konfiantza osokoa!

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatortz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



ZUMAIA MOTOR



CITRÖEN
ZERBITZU
OFIZIALA

Santixo auzoa, 22 Tel. eta Faxe : 943 143 143

mekanika orokorra • erakusketa • salmenta • bigarren eskuko autoak